

Afrikako bihotzean

El Mundo del País Vasco, 1992-03-06.

Afrikari dagokion euskal liburu bat irten da egun hauetan: *Hamazazpi bilabete Afrikako bihotzean*. Egilea, euskal idazle ospatsua den Jean Diharce, Donibane-Lohitzunen 1920an "Amatto bihotz zabal" eta pelotari euskaltzale baten familia gozoan sortua. Apezgorako ikasketak egiten ari zela ahaztu zitzaion euskara, eta gero aita Lafitte handia medio berrikasi, eta 21 urtez, 1941an, egin zuen Beneditarretarako aukera Beloken. Dagoeneko hasia zen idazten Euskalduna, *Euskalerrria*, *Gure Herria*, *Otoizlari*, *Herria*, *Euzko-Gogoa*, *Gernika*, *Egan*, *Zeruko Argian*, eta poesia ederreko liburu asko idatzi du harrez gero, antzerkia eta eliz abestiak ere, gainera, prosa gozoan, *Belokeko historia*, Beloke eta Lazkaoko etheen lotura hestua erakusten duena. Bere betiko hiru amodioak: Jainkoa, familia eta euskara izan dira. Beloken Prior eta Aita Abade urte askotan ezan eta gero, egin berria du orain aipatzen ari garen Dahomey-en egonaldi luze bat. Halere Honez gain, bere biografiako puntu bat azpimarra nahi nuke: 1936ko errefuxiatuen artean ezagutu zuen Beloken Jose Ariztimuño "Aitzol", eta hil zutela jakin zuenean, oraindik oso gazte eta dagoeneko poeta gartsu zenak, zati hauek daramatzan poema idatzi zuen:

"España hortan izan da segur asko bitxikeri: / Horra nin zaikun etorri Euskadirat Galtzagorri / Jainkoaren amodioz jazartzerat apezkeri / Berriki apez bat hil beharrez zeramaten; / Hil-harrietan tiroka odolez eztali zuten / Infernuan zer irriak orduan egin zituzten.

Nor zen? Apez suharrena, Aitzol, Aitzol kartsu hura. / Gerra azeztatu nahiz bihotza dute zilatu; / baina gure bihotzerat gar hek zaizkigu airatu / Zure heriotzak, Aitzol, fruituak ematen ditu".